



BERDINTASUNERAKO GOGOETA
ETA PROPOSAMENAK
KORONABIRUSAREN GARAIAN

Garbira
pasatzeko
zirriborroak

by @muxotepotolobat

1. SARRERA

COVID-19aren krisiak izugarri aldatu ditu agenda eta lehentasun politiko eta sozialak, eta politika publiko guztiak birbideratzen ari dira lehentasun horiei erantzuteko. Ildo horretan, ezinbestekoa da genero-ikuspegia kontuan hartzea, epe labur, ertain eta luzean hartzen diren neurriak ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen, bai emakumeentzat, bai gizonentzat.

Testuinguru horretan, euskal erakunde publikoen lehentasunetako bat izan da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasuetarako arreta-zerbitzuen funtzionamendua bermatzea, bai eta biktima guztiek zerbitzu horietarako sarbidea izatea ere, haien aniztasuna kontuan hartuta. Gainera, Eusko Jaurlaritzak neurriak hartu ditu indarkeria matxista ez den beste esparru batzuetan, hala nola kontziliazioan, erantzukidetasunean eta berreraikitze politiketan.


Hain zuzen ere, gizarte berreraikuntza emakumeen eta gizonen behar eta interes desberdinak kontuan hartuta egiten laguntzeko, Emakundek saio birtualen ziklo bat antolatu zuen, “Garbira pasatzeko zirriborroak” izenekoak, eta horren edukiak eta ondorioak dokumentu honetan jasotzen dira.

Hausnarketak eta eztabaidak errazteko eta ekarpenak jasotzeko sortu zen zikloa, bai eta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko pandemiaren ondorioz sortutako erronka berriak identifikatzeko gune izateko ere. Hori guztia, etorkizuneko politikak bideratuko dituzten proposamenak sortzeko.

Zirriborro horiek hainbaten arteko lanaren emaitza dira, non adituek, talde profesionalek eta publikoak denbora eta ezagutza jarri baitute pentsatzeko eta proposatzeko lan kolektiboan. Konpainia, ekarpenak, galderak eta iradokizunak eskertu nahi dizkiegu eztabaidetan parte hartu duten ehunka lagunei, eta, jakina, ekarpen hain eskuzabala egin duten parte-hartzaileei.

Halaber, eskerrak eman nahi dizkiegu proiektu hau posible egin duten lan taldeko kide guztiei.

Hori guztia, sinetsita egindako ekarpen baliotsuak gidari izango direla inor atzean utziko ez duen eta gizarte justuago eta berdinzaleago bat lortzera hurbilduko gaituen gizarte berreraikuntzarako



Izaskun Landaia Larizgoitia
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria

2. SARRERA: EKINTZARAKO GOGOETA

2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) pandemiatzat jo zuen COVID-19a, eta, egun horretatik aurrera, ziurgabetasuna da gure ziurtasun bakarra. Herrialde guztiak ari dira neurriak eta estrategiak aplikatzen inoiz ikusi gabeko egoera bati aurre egiteko: kartografia ezagunik ez dagoen lurralde batean ari gara lanean, eta horrek eragin zuzena du gure bizimoduan eta harremanetan. Inoiz ez genuen aurrean izan horrelako krisialdi global eta sistemiko bat, baina egiaztatzen ari gara eragin integrala duela erantzun publikoak eraikitzeko oinarri diren sistema guztietan.

Hasiera batean, krisi hau, funtsean, osasun publikoaren eremukoa da, baina, izugarrizko eragin zuzena du gure bizitzetan, eta orain arte gure bizi-proiektuen oinarri izan diren eskema tradizionalak aldatzen ari da. Ebidentzia guztien arabera, gainera, luzera begirakoak izango dira aldaketa horiek.

Osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisia mundu guztiari ari zaio eragiten, baina ez modu berean. Egoera hori aztertze aldera, zeharka aplikatu behar da genero-ikuspegia, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko erronka eta desafio berriak identifikatzeko. Garapen Jasangarriaren Agendak bere gain hartutako erronka, «inor atzean ez uztea», inoiz baino premiazkoagoa da; izan ere, arrisku handia dago egoera honek desberdintasun sistemikoak kroniko bihurtzea eta beste desberdintasun batzuk indar handiagoz azalera daitezen.

Emakumeek gehiegizko ordezkartza dute lan sanitarioetan eta funtsezko zerbitzu deiturikoetan, eta, aldi berean, maila handiagoan pairatzen dituzte lan-pobrezia, enplegu-prekarietatea eta soldata-desberdintasuna. Zaintza formal eta informalen hornitzaile nagusiak dira, eta genero-indarkeria, sexu-indarkeria eta beste indarkeria mota batzuk pairatzeko arrisku etengabea bizi dira, eta, egun, areagotzen ari da arrisku hori.

Horregatik guztiagatik, errealitate horri aurre egiteko aplikatzen diren erantzunetan kontuan hartu behar dira arrisku eta afekzio espezifikoak; izan ere, hori ez egiteak ondorio ekonomiko eta sozial larriak ekarriko lituzke, eta horrek desberdintasuna areagotuko luke. Nazioarteko erakunde guztiak ari dira ohartarazten inboluzio-arrisku larria dagoela azken urteetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egindako aurrerapenei dagokienez.

«Garbira pasatzeko zirriborroak» zikloaren bidez, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak hausnarketa bat egin nahi izan du eztabaidarako ekarpenak, eta proposamenak egin ditu agenda publikoak ekintza inklusibo eta jasangarri baterantz bideratzeko. Horretarako, hainbaten artean eraikitzeko eskema bat ezarri du, eta bost eremu nagusitan adituak eta askotarikoak diren ahotsek parte hartu dute: krisiak duen eragina emakumeen aurkako indarkeriei heltzeko orduan; emakumeen osasunean dituen ondorioak, haren adiera zabalenean; Euskadiko mugimendu feministak egindako proposamenak eta emandako erantzunak; ekonomian dituen eraginak eta emakumeengan dituen inplikazioak; eta, azkenik, zaintza, bizitzaren jasangarritasunerako funtsezko elementu gisa.

Bost mintegi hauetan jaso ditugun ohar eta zirriborroek eztabaida publikorako ekarpen bat izatea dute helburu, bai eta gizarte berdinzaleago bat eraikitzeko ekarpena izatea ere.

3. GARBIRA PASATZEKO ZIRRIBORROAK: ZIRRIBORROEN KOADERNOAK

1. SAIOA - 2020/05/14

«COVID-19a eta emakumeen aurkako indarkeria. Ikasitakoak eta proposamenak»

PARTE-HARTZAILEAK

Norma Vázquez.

Hainbat indarkeriatan aditua den psikologo feminista. Emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako Sortzen aholkularitza-enpresa zuzentzen du. Bizitza erdia darama gai horri buruz ikertzen eta hainbat erakunderi prestakuntza eta aholkularitza ematen.

Mónica Ramos.

Gizarte Psikologian lizentziatua, Gizarte Antropologian doktorea, emakumeen zahartzeari lotuta dago bere arretagune nagusia. 1999an sortu zenetik Gerontologia eta Gizarte Zerbitzuetako Prestakuntza Institutuarekin (INGESS) lotuta dago. Haren fundatzaile izan zen, eta, egun, zuzendaria da. Besteak beste, «Envejecer siendo mujer» (Emakume izanda zahartzea) lanaren egilea da.

Jorge Freudenthal.

Psikologian lizentziatua, genero-indarkerian diziplina anitzeko esku-hartzean aditua, EBIko psikologoa (Euskadiko Birgizarteratze Institutua), Deustuko Unibertsitateko Genero Indarkeriaren Masterreko irakasle gonbidatua eta kontsulta pribatuko terapeuta. Zigorak Kudeatzeko Euskal Zerbitzuaren indarkeria matxistagatik kondenatutako pertsonentzako Gakoa programa koordinatzen du.

GERTUTIK BEGIRATZEA: DIAGNOSTIKOA ETA AZTERKETA

Pandemiak indarkeriaren biktima diren emakumeen arretan dituen ondorioei buruzko informazioa dinamikoa da; beraz, diagnostiko honen esparrua marrazterakoan, topaketa hau egin zen egunean eskuragarri zeuden datuak erabiliko ditugu.

Konfinamendu zorrotzak eta ondorengo arintze progresiboak markatutako lehen asteetan, indarkeria matxistagatik salaketa gutxiago egin ziren Euskadin, baina dei gehiago egin ziren telefono bidezko arreta-zerbitzuetara: Ertzaintzaren arabera, biktimizazioen kopurua % 36 jaitsi zen martxoaren bigarren hamabostaldian eta, % 26, apirilean; aldiz, Eusko Jaurlaritzaren Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren 900 840 11 telefonora (SATEVI) egindako deiak % 25 areagotu ziren. Foru-aldundietako laguntza psikologikoko baliabideek (telefono bidezkoa, telematikoa eta aurrez aurrekoa larrialdietan) 4.200 laguntza-saio baino gehiago egin zituzten, emakumeen 1.400 kasu aktibo baino gehiago izan zituzten, eta, martxoaren 16tik apirilaren 30era bitartean, 193 kasu berri artatu ziren.

COVID-19 eta emakumeen aurkako indarkeria



Oraindik ez daukagu informazio nahikorik ulertzeko nola egin dioten aurre egoera horri indarkerien eraginpean egon diren emakumeek. Ziur aski, erresistentzia- eta kontentzio-estrategiak erabili dituzte; izan ere, banakako mekanismoak –kasu askotan, bizirik irautekoak– garatzera behartu ditu emakume horiek laguntza-sareetara iristeko aukerak mugatuak izateak eta konfinamenduak. Ezagutza horretan sakondu behar dugu.

Ezin dugu homogeneizatu gertatzen ari denaren diagnostikoa, askotariko egoerak baitaude, eta, beraz, ugariak dira horiei aurre egiteko estrategiak ere.

«Etxean geratu» mezuak, ezinbestekoa izan baita osasun-arriskuagatik, kontraesan inplizitua izan du beren etxean indarkeriari aurre egiten dioten emakumeentzat. Etxea ez da leku segurua eta eroso mundu guztiarentzat.

Indarkeriaren sozializazioaren aurrean, sufrimendua pribatizatu behar izan dute emakume askok. Antsietatea, bakardadea eta deskonexioa indarkeria-arriskua areagotzen duten eta ekitea eragozten duten faktoreak dira.

Isolamendua faktore bereziki garrantzitsua da indarkeria jasaten duten adineko emakumeen kasuan. Egoera horietan orokortzerik ez dagoen arren (sinplifikazioak ez baitu behar bezala jasotzen errealitate horren heterogeneotasuna), obediencia eta mendekotasunaren gisako balio matxistetan sozializatu diren adineko emakumeek beren azalean jasaten dituzten indarkeriak normalizatzeko joera dute. Indarkeria horiek askotarikoak dira: ekonomikoa, soziala, emozionala, psikologikoa eta fisikoa. Jasaten duten diskriminazio bikoitzak (adina eta generoa) konplexuago egiten du kasu horiek identifikatzea eta, horrenbestez, laguntza ematea.

Laguntza-sareak, neurri handi batean, desaktibatuta geratu dira, eta horrek babesgabetasuna eta bakardadea areagotzen ditu.

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontakizunak ez du behar bezala biltzen adineko emakumeen egoera. Emakume horien indarkeriari buruzko autopertzepzioa txikia da, bizitzan zehar normalizatu egin baitute, eta ez dugu mezu horietan identifikatzea ahalbidetzen duen erreferentzia garbirik eskaintzen.

Emakumeen aurka indarkeria erabiltzen duten gizonen maskulinitasun-eredua ere tentsionatu egiten da egoera horretan. Konfinamenduak, ziurgabetasunak eta beldurrak eragindako antsietateak eta haserreak botere-estatus tradizionaletik aldendu ditu gizonak. Bizkortu egin dira indarkeriaren zirkuluko prozesuak.

Sistema digitaletara mugitu diren arreta-zerbitzuek kontuan hartu behar dituzte teknologia erabiltzeko aukerei dagokienez dauden arrakalak (adina, egoera sozioekonomikoa edo lurraldea), eta eginkizun hori beste baliabide batzuekin osatu behar dute.

AURRERA BEGIRATZEA: PROPOSAMENAK ETA ONDORIOAK

Emakumeek denbora horretan garatu dituzten bizirik irauteko, erresistentziarako eta egokitzeko estrategiei buruzko ikerketan sakontzea. Arreta-zerbitzu asko «itsu» geratu dira errealitate horietara iristeko ezintasunaren aurrean. Beharrezkoa da arreta jartzea sortzen joango diren «ondoez» berrien aurrean, zeinek ebidentziak eskain baititzakete emakume horiei beren esperientzia jakintza kolektibo gisa itzultzea ahalbidetzeko.

Indarkeriei buruz dugun ikuspegia zabaltzea, lehen hurbilketa honetan oso desitxuratuta geratu diren beste marjinazio, abusu, tratu txar eta abarretara iristeko: irregulartasun-egoeretan dauden emakumeak, sexu-indarkeria jasaten duten haur eta nerabeak, prekarietate-egoeran dauden emakumeen aurkako botere-abusuak eta abusu fisikoak eta abar.

Berdintasun-politiken baliabideak indartzea.

Adineko emakumeen aurkako indarkeria ikusaraztea, eta errealitate horiek sentsibilizazio-ekintzetan, politika publikoetan eta abarretan txertatzea.

Emakumeen laguntza-sareak eta prestakuntza-, sozializazio- eta ahalduntze-baliabideak indartzea, eta zuzeneko sozializazio-zirkuluen inplikazio aktiboa bilatzea: familia, bizilagunak, komunitatea eta abar.

Adinaren eta generoaren ikuspegi bikoitza sartzea zuzeneko arretako baliabideetan: lehen mailako osasun-arreta, gizarte-baliabideak, adineko pertsonentzako zentroak eta abar. Eta, halaber, prestakuntza handiagoa ematea gaitzen, kontrol-portaeren eta abarren atzean ezkututzen diren indarkeria-egoerak identifikatzeko.

Maskulinitate berriak lantzea, gizonek inplikazio handiagoa edukitzea zaintzari lotutako eginkizunetan, emakumeen kargak ikusaraztea eta abar.

2. SAIOA -2020/05/28

«COVID-19a eta horrek emakumeen osasunean duen eragina: ikasitakoak eta proposamenak».

PARTE-HARTZAILEAK

Amaia Bacigalupe De La Hera.

UPV/EHUko osasunaren gizarte-baldintzatzaile eta aldaketa demografikoari buruzko ikerketa-taldeko (OPIK) kidea.

Maria del Mar García Calvente.

Osasun Publikoko Andaluziako Eskolako generoko eta osasuneko irakaslea. Osasun publikoan espezializatutako medikua, generoan, zaintzan eta osasunean aditua.

Marga Saenz Herrero.

Psikiatra eta UPV/EHUko irakasle elkartua. Osakidetzako langilea.

GERTUTIK BEGIRATZEA: DIAGNOSTIKOA ETA AZTERKETA

Maiatzaren 28an egin zen mintegia, emakumeen osasunaren aldeko ekintzaren munduko egunean. 1987az geroztik ospatzen da egun hori, aldarrikatzeko osasuna giza eskubidea dela eta emakumeek hura inolako murrizketarik edo bazterketarik gabe eta beren bizitza osoan zehar eskuratzeko aukera izan behar dutela.

Emakumeek gehiegizko ordezkaritza dute krisi honetan inplikaziorik zuzenena duten eginkizunetan: sektore soziosanitarioak, funtsezko zerbitzuak eta zaintza. Oro har, sektore sanitario eta sozialetan lan egiten dutenen % 70 dira, eta gizonek baino hiru aldiz ordaindu gabeko zaintza-lan gehiago egiten dituzte. Horri gehitu behar diogu emakume askok uko egin behar izan diotela ordaindutako enpleguari, zaintza-lanak egin behar izateagatik, ikastetxeak itxita daudelako. Lanpostu horiek, ehuneko handi batean, prekarioak dira, lan-bazterketatik eta -pobreziatik oso gertu, sektore kaltetuenetan, hala nola merkataritzan, turismoan eta ostalaritzan, zeinak oso feminizatuta baitaude.

Ezinbestekoa da genero-ikuspegia txertatzea, pandemia honen eraginei buruzko ikuspegi egokia izateko. Generoa osasunaren aldagai bat da, baina egiturazko desberdintasunak adierazten dizkigun sistema baten funtsezko pieza ere bada, eta aldagai hori beste osasun-, gizarte- edo kultura-aldagai batzuekin erlazionatu behar da, eta beste desberdintasun-faktore batzuekin nola intersektionatzen duen ikusi. Gaixotasunaren alderdi biologikoetara bideratuta egon da ekintza, baina, ulergarria zenez, ezin dugu osasuna ikuspegi indibidualetik aztertu, besteekiko harremanean baizik, hau da, bere dimentsio sozial eta politikoa.

Genero-ikuspegiaren helburua ez da soilik ikustea zer gertatzen zaien gizonei eta emakumeei, genero-arrakalak identifikatzea eta horiei aurre egitea ahalbidetzen duten kategoriatzat hartuta, baizik eta beste desberdintasun-iturri askori erantzuteko balio digute: emakume arrazializatuak, kolektibo kalteberak eta abar. «Krisiaren krisi» handi baten aurrean gaude: epidemiologikoa (gaixoen eta ospitaleratzeen metrika), soziala (lan-merkatua, zaintza-sistema) eta abar. Horrez gainera, egoera batzuk ez dira ikertzen ari, ezkutuan egoteagatik: egoera irregularrean dauden emakumeak, prostituzioa eta abar. Hain egoera konplexua hobeto ulertzen lagundu behar digu begirada interseksionalak.

COVID-19 y su impacto en la salud de las mujeres:

aprendizajes y propuestas.

COVID-19 eta honek emakumeen osasunean duen eragina: Ikaskuntzak eta proposamenak.

Garbira notas
para pasar
pasatzeke
zirraborroak a limpio



Amelia Baciaalupe, Mar García, Marga Saenz maizatzak 28 mayo online

UNA FUNDACIÓN DE ACCIÓN POR LA SALUD DE LAS MUJERES

#GraphicRecording by @muxotepotolobak



Osasun-sistemek genero-joerak dituzte, eta, hori dela eta, galdetu behar diogu geure buruari ea behar bezala ari den diagnostikatzen gaixotasun hori, ea hari buruzko informazioa egoki ari den ematen eta ea ongi ari garen artatzen, COVID-19aren inaktuak ez baitira homogeneoak gizonengan eta emakumeengan. Diagnostiko zehatzagoa behar dugu, sexuaren arabera bereizitako informazioa duena, datu horien genero-analisia eta sexua eta generoa kontuan hartzen dituen ikerketa.

Informazioaren funtsik eza, ez da nahikoa egoeraren genero-irakurketa eta irakurketa intersektionala izateko. Informazioa ez da sendoa iturri guztietan, eta informazioaren zati handi bat genero-joeretatik abiatzen da, eta horiek analisia zailtzen dute. Eragina argiki desberdina da osasun-irizpideen arabera, hala nola okupazioa, adina, enpleguetako prekarietatea eta abar. Hala ere, emandako datuak sexuaren arabera bereizita daude, baina genero-azterketatik interpretatzea falta da.

Badakigu gizonak eta emakumeak jokabide desberdinak dituztela arrisku-faktoreen aurrean, eta patriarkatuaren estereotipoei lotutako agindu kultural desberdinei erantzuten dietela. Hori dela eta, ezinbestekoa da aplikatzen ari diren neurrien genero-eraginaren ebaluazioa egitea: aurrez, garapenean dagoenean eta ondorengo ebaluazioan.

Emakumeak, zaintzaile gisa duten rolagatik, beren burua zaintzeko hobeto prestatuta egon daitezke, baina rol horrek lehen arrisku-lerroan jartzen ditu emakumeak birusaren aurrean.

Zaintzaileen rol horren ondorioz, beren nortasunaren parte gisa barneratzen dutenez, gaixotasunari eta artatzen jarraitzeko ezintasunari lotutako ondorio gehiago dituzte emakumeak buruko osasunean, hala nola depresioa, antsietatea eta errudun sentitzea.

Zainketak birfamiliaritzatzea: eremu pribatura itzultzen da, eta asko zailtzen du analisia. Joera hori bazegoen, baina baliabide publikoen gabeziak eta funtsezko baliabideen itxierak areagotu egin du.

Emakumeak jasan beharreko mota guztietako gainkargak, haien osasunean eragiten ari direnak. Emakumeak gehiago hartzen dute beren gain zaintza, denbora gehiagoz eta intentsitate handiagoz. Zereginak ere desberdinak dira gizonen eta emakumeen artean; besteak beste, garbiketa-lan gehienak emakumeen esku geratzen dira, eta, hortaz, pandemian dagoen arriskua areagotu egiten da. Era berean, pandemiaren testuinguruan, emakumeak bete dituzte gehienbat sistema publikoek egoera kroniko edo ez-urgentez arduratzeko dituzten zailtasunak.

Erantzun berriek, telelanak adibidez, azterketa zehatzagoa eskatzen dute atzerapausorik gerta ez dadin berdintasunaren arloan, une honetan oso arrisku handia baitago.

Arreta psikiatrikoari dagokionez, baliabide publikoak murriztu dira, eta egoera askoren arrastoa galdu da pandemiaren fase larrienetan. Genero-ikuspegitik, eta osasuna erlazioan dauden gorputzen sistematzat hartuta, ezin dugu ikuspegi integral batekin esku hartzeko gaitasun hori galdu. Oro har, emakumeak beren osasun mentalaren gaineko erasan handiagoa adierazten dute konfinamenduan, eta, halaber, adierazten dute erasan horrek denboran gehiago irautea aurreikusten dutela.

AURRERA BEGIRATZEA: PROPOSAMENAK ETA ONDORIOAK

Lehentasun politiko eta soziala: zaintza-sistema bat eta zaintza publikoari laguntzeko sistema bat ematea, birfamiliarizazioa gainditzeko, emakumeen osasunean ondorioak baititu, eta, gainera, berdintasunaren arloko aurrerapenetan atzera egiteko arriskua sortzen baitu. Gizarte gisa, guztion artean hartu behar dugu zaintzaren ardura, estereotipo mugatzaileak gaindituko dituen berdintasunezko begirada batekin.

Informazio zehatza sartzea, beste mugatzaile sozial eta ekonomiko batzuekin erlazionatua, erantzun-estrategiak identifikatzeko.

Askotariko profilak sartzea pandemiaren eta berreraikuntza-lanen kudeaketa-batzordeetan. Osaketa epidemiologiko, tekniko eta maskulinizatu huts batetik eboluzionatzea, funtsezko pieza baita ikuspegi integratzaileago bat emateko.

Autoantolaketaren eta erantzukidetasunaren erantzun komunitarioak jaso eta sustatzea, ongizatea ekarri baitiote pertsona askori.

Bizitza babestuko duen arau-eredu bat eraikitzea, osasuna modu integralean balioetsiko duena eta pertsona guztiei, zentzu osoan, balio sozial bera emango diena.

3. SAIOA - 02/06/2020

“COVID-19aren testuingurua feminismoaren ikuspegitik: ikaspenak eta proposamenak”

PARTE-HARTZAILEAK

Josune Oyarbide.

Maria de Maeztu Forum Feminista. Talde aitzindaria, 1988an sortua, ekarpena egiteko gizarteari begira eta erakundeekin lan eginez. Berdintasunaren gaian eskumenak dauzkaten erakunde guztiekin egiten dute lan eta askotariko ekimenen bidez, sentsibilizazio-lana egiten du, bere helburu baita emakume eta gizonen arteko berdintasun erreala duen gizarte bat lortzea da.

Maidier Zilbeti.

Plazandreok, Emakumeen Plataforma politikoa. 1993an sortu zen, Donostiako bi talde feministetatik abiatuta: talde Feminista Independentea eta Emakumeen Asanblada. Antolatu gabeko emakume feministak batuz joan dira eta gaur egun Gipuzkoan alderdi politikoetatik bereizita dagoen talde feminista bakarra da.

Josebe Iturrioz.

Militante Transfeminista. Plazandreok plataforma politikoa hasi zen lanean eta 2000. urtean Medeak kolektibo transfeminista sortu zuen beste lankide batzuekin batera, planteamendu eta diskurtso transfeministak Euskal Herrian txertatzeko.

GERTUTIK BEGIRA: DIAGNOSTIKOA ETA ANALISIA


COVID-19ren krisiak agenda eta lehentasun politiko eta sozialak aldatu ditu. Aditu guztiek ohartarazten digute pandemia horrek emakumeengan eta gizonengan duen eragin desberdina dela, bai eta ekonomia-gizarte- eta familia-ondorio desberdinak dakartzalako. Hori dela eta, genero-ikuspegi intersektionala aplikatu behar dela azpimarratzen da, bai azterketan, bai lehendik zeuden egiturazko desberdintasunak areagotu eta larriagotu egiten dituen krisi honi erantzutean.

Emakumeek osasun eta gizarte zerbitzuetan duten ordezkapen-maila. Emakumeak dira lan-eremu horietako langileen %70, eta ez dugu ahaztu behar kolektibo horietan eragin duela birusak nabarmen. Emakumeak dira, halaber, konfinamendu osoan lehen lerroan egon diren sektoreetan lan egiten dutenak, hala nola elikadura-merkataritzan, garbiketa-zerbitzuetan, egoitzetan... Gainera, etxeko langileek eta zaintzaileek beren gain hartu dituzte mendeko pertsonak zaintzeko lanak.

COVID-19aren testuingurua feminismoaren ikuspegitik: ikaspenak eta proposamenak.



Garbira notas
para Basar
basatzeko
zirriborroak a limpio



Jesune Cyarvide, Maider Zilbeti, Josebe Iturrioz -ekainak 2 junio- online

#GraphicRecording by @muxotepotolobat



Etzeko lanak eta zaintza-lanak areagotu dira eremu pribatuan. Emakumeek hartzen dute beren gain lan horren zatirik handiena, eta egoera hori larriagotu egin da ikastetxeak itxi direlako eta telelana zabaldu delako. Horrek guztiak areagotu egin du emakumeek berez zuten zaintza-lanaren gainkarga.

Emakumeek pairatzen duten laneko pobrezia eta prekarietate handiagoa. Egoera horrek krisialdi honi aurre egiteko abiapuntuko egoera okerragoan jartzen ditu. Gehien sufritu duten sektoreak, hala nola turismoa eta ostalaritza, oso feminizatuta dauden. Gainera, sektore horietan eragiten duten beste faktore batzuk gehitu behar dira, hala nola aldi baterako lanak eta lan partzialak egotea, ezkutuko ekonomia, etab.

Euskal Herriko Koordinadora Feministak apirilaren erdian argitara eman zuen arazoa definituz eta diagnostikoa eginez, zaintza politika publikoak eta denboraren kudeaketa politika publikoa aldarrikatuz. Egiturazko desberdintasunei, diskriminazio eta bortizkerien aurrean erantzuteko gaitasuna emendatu egin behar dugu.

Lehendik zeuden arrakalen gainera etorri da pandemia, eta harekin arrisku argi batzuk ekarri dizkigu: batetik, bazterketa ekonomikoak bazterketa soziala ekar dezake, eguneroko bizitza aurrera ateratzea lehenetsuna denean ezin delako bizitza sozial publikoan; bestetik, herritartasun-eskubideak auzitan geratzeko arrisku handia dago, eta azkenik, emakumeen kontrako bortizkeriaren espirala bizkortu daiteke.

Pandemiak areagotu egin du feminismoa aspaldidanik ikusarazten ari zen kolapsoa. Krisi multikausala da kapitalismo patriarkal eta kolonialista muturrera eraman izanak bizkortu egin duena. Ekonomia eta bizitza kontrajarriz eraiki den sistemaren arrakalak ikusi ditugu: birusak erakutsi digu lan esentzialak ez direla erraz ezkontzen sistemak nagusiki prestigiozkotzat jotzen dituen lanekin, baizik eta sistemak berak gutxietsi eta azpi-ordaintzen dituenekin.

Egoera honek berretsi egiten du feminismoak aurreikuspenak egiteko duen gaitasuna eta aukera ematen digu balore-sistema eraldatzeko eta gizarte-trantsizio sendo bat egiteko.

Emakumeak estatuburu diren kasuetan nabarmendu izan dira emaitza onak eta gestio-eredu desberdinak erabili izan direla. Ikuspegi feministatik aztertuta, argi-fokoa jarri da irakurketa esistentzialetik, herri horietako testuinguru zabala kontuan hartu gabe. Egitura sozial eta politiko aurreratuetan datza gakoa, egiturazko partehartze-dinamika aurreratua izaten dituztelako, besteak beste, lidergo kolektiboak ahalbideratzen dituzten gunetan oinarrituta. Emakumearen beresentziazioa arrisku handia da une honetan eta urteetako eztabaida feminista sinplifikatzea ekar dezakeela eta, erne egon beharra dago.

AURRERA BEGIRA: PROPOSAMENAK ETA ONDORIOAK

Begirada feministaren ordua da. Gizarte osoari eragingo dioten erantzunak taxutzeko orduan, ikuspegi feminista txartatzea nahitaezkoa da. Krisi honek areagotu egiten ditu lehendik gure gizartearen oinarrietan zeuden desberdintasunak. Osasun-krisiaren ondorioak aztertzerakoan, ezinbestean hartu behar da kontuan gizon eta emakumeak abiaburu desberdinetatik kokatu direla egoera berri horretan, eta beraz, epe ertain edo luzera begirako ikuspegiarekin, krisiaren aurreko gabeziak aztertu behar dira.

Eraldaketa-garaia da. Ikuspegi feministatik erantzuna eman ahal izateko, emakumeen jabetze-estrategietan sakondu beharra dago, sistemazko desberdintasunak zuzentzeko eta gizarte honek oinarrian dituen gabeziei aurre egiteko.

Feminismoaren ekarpena ezinbestekoa da. Pentsamendu-eskola batzuk besteak baino hobeto prestatuta daude konplexutasun-aro honetan ekarpena egiteko, eta feminismoa dago une honetan pentsamendu-sortzearen abangoardian. Aspaldidanik iragarri dute pentsalari feministek krisi hau eta beren ekarpenetan aurkitu daitezke aldi berri honetarako gakoak.

Identitatetik ekiteko ahalmenera. Gizarte-mugimendu askotan nagusi izan diren eztabaida identitarioak (subjektuaren ingurukoak) gaingitu eta agentziazko eztabaidak eta estrategiak garatu behar dira: egiteko eta ekiteko ahalmena landu behar du feminismoak. Feminismoa hedatuz eta aberastuz joan den neurrian, eztabaida batzuk nagusitu egin dira, hala nola, deskolonizazioa, ekofeminismoa, transfeminismoa, prostituzioa, eta abar. Maiz gatazka gisa ikusten badira ere, pentsamenduaren eboluzioa gisa ulertu daitezke.

Aliantza-garaia da. Auzoetan sortu diren zaintza-sare kolektibo mistoek erakutsi dute estrategia desberdinak dituzten askotariko militanteek ekarpena egin dezaketela aliantzen bidez. Eragile eraldatzaileen arteko aliantza-gaitasuna indartu behar dugu. Bere garaian abian jarritako Eragin-guneak bezalako prozesuek erakutsi ziguten agentziako gaitasun handia dagoela ikuspegi aniztasuna egituratzen bada, aliantza-estrategia sendo baten oinarrituta.

Ekimen publiko sendo, integratzaile eta eraldatzailea. Mugimendu feministak hamarkadak daramatza zerbitzu-publikoak aldarrikatzen, bizitzari eusteko ezinbestekoak diren baliabideak bermatu ahal izateko. Egitura sendoak, duinak eta prestigiotsuak behar ditugu zaintzaren funtzioari (bere luze-zabal osoan) eusteko.

4. SAIOA - 2020/06/11

«COVID-19a eta berdintasuna arlo ekonomikoan: ikasitakoak eta proposamenak».

PARTE-HARTZAILEAK

Maria Pazos Morán.

Matematikaria, Estatistikako masterra Harvarden. 2003tik 2019rabitartean ikerketa-ikasketetako burua izan zen Zerga Azterketen Institutuan, non Hacienda Pública e Igualdad de Género (Ogasun publikoa eta genero-berdintasuna) ikerketa koordinatu baitzuen. Ikertzailea eta irakaslea, eta Permisos iguales e intrasferibles (Baimen berdin eta besterezinak) plataformako kidea.

Mertxe Larrañaga.

Ekonomiako doktorea eta irakaslea UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean. Irakaslea da, halaber, ekonomia feministari buruzko hainbat masterretan (adibidez, Ikasketa feministetako eta genero-ikasketetako masterrean). UPV/EHUko lehen berdintasunerako zuzendaria izan zen. Ekoizpen akademikoa: ekoizpen- eta ugalketa-lanetako desberdintasunei buruzko artikulatuak eta komunikazioak, genero-adierazle ekonomikoak, genero-ikuspegia duten aurrekontuak, ekonomia soziala eta solidarioa eta giza garapena.

GERTUTIK BEGIRATZEA: DIAGNOSTIKOA ETA AZTERKETA.

COVID-19aren krisiak ondorio ekonomiko eta sozialak ditu, eta horiei genero-ikuspegia duten jarduketa espezifikoak eman behar zaizkie. Krisialdi hau sanitarioa, ekonomikoa eta soziala da, eta eragin desberdina du eta izango du etorkizunean emakumeen eta gizonen bizitzan. Mahai gainean jarri dituen lau alderdi garrantzitsu aipatu behar dira, gutxienez: gainkarga lan sanitarioan eta funtsezko zerbitzuetan, zainketen zentraltasuna, ekonomiaren moteltzea, langabeziaren hazkundera eta emakumeen aurkako indarkerian duen eragina.

NLEren arabera, 25 milioi enplegu gal litezke munduan, eta horrek eragin sakona du merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako sektoreetan, zeinetan oso handia den emakumeen presentzia.

Emakumeak dira bizitzaren euskarria munduko eskualde guztietan. Pandemiarekin batera gertatzen ari den krisi ekonomikoak lan-merkatuari eragingo dio. Merkatu horretan, emakumeek dituzte lanaldi partzialeko enpleguen % 74, prekarietate handieneko lan-baldintzetan, eta, soldata-arrakala kontuan hartuta, pobrezia-egoeran sartzeko arrisku handiagoa dute.

COVID-19a eta berdintasuna
alor ekonomikoan:
Ikaste eta proposamenak.



Egungo krisiak ekonomia feminista berresten du, beste analisi ekonomiko batzuen aldean. Pentsamendu-korrante horrek begirada kritikoa planteatzen du, errealitate eta teoria ekonomikoak zalantzan jartzen dituen, eta, horretarako, gizonei eta emakumeei esleitzen zaizkien rolen analisia egiten du. Homo economicus delakoak, erantzun unibertsal eta denboragabearen eredu baita, ez du errealitatea islatzen, eta ekonomia feministak, bere ekarpenen bidez, aurre egiten dio.

Pertsonen bizitza eta bizitzaren jasagarritasuna jartzen ditu erdigunean ekonomia feministak, eta aurre egiten dio norberaren interesari eta beste korrante batzuek defendatzen duten aberastasun-metaketari. Egungo egoera ikusita, ekonomia feministak ezagutza ematen du aro historiko berri honi aurre egiteko: zainketen ekonomia, bizitzarako lan-egitura eta abar.

Ekonomia ortodoxoenak pertsonak desagerrarazi zituen azterketatik, eta ekonomia feministak, berriz, erabakiak hartzeko zentralitatea haiei itzultzearen alde egiten du.

Aplikatzan ari diren erabakiek logika posibleetako bati erantzuten diote, baina badira genero-ikuspegia kontuan hartuta behar bezala baloratu ez diren beste aukera batzuk ere. Ez da kuantifikatu prebentzio-neurri horien kostua biztanleria-sektore kalteberenen gaineko eraginari dagokionez, eta sektore horien artean daude emakumeak. Nahiz eta ziurgabetasuna oso handia den eta erabakiak hartzearen konplexutasuna aitortu behar den, shock patriarkalaren doktrinara hurbiltzen da egungo egoera.

Krisiak sistemaren ezaugarri estruktural bat dira, eta oraingoa zaintza-sistemaren balioa nabarmentzeko aukera bat izan zitekeen arren, egungo neurriek ez dute norabide horretan jotzen. Ekonomiaren marjinetan daudenak desberdintasun-egoeran mantentzeko joera du merkatuen nagusitasunak, eta, beraz, azterketaren oinarriak eta ekintzen lehentasunak aldatzen ez badira, ziurtzat jo dezakegu desberdintasunak gora egingo duela, eta hori zorrotzagoa izango da garatzeko aukera gutxiago dituzten pertsonentzat.

Merkatuak balioesten duena zuzenean dago lotuta merkatuak berak bere azterketan sartzan ez duenarekin, eta horren artean nabarmendu behar dira ordaindu gabeko zaintza-lana eta prestigiorik gabeko funtsezko zerbitzuen prekarizazioa.

Ez dugu baliatu egoera eredu ekonomiko eta soziala birpentsatzeko, baizik eta jarduera azkar suspertzen dela bermatzeko.

Implementatu diren neurriek, nahiz eta estaldura soziala izan (hala nola ABEEak eta abar), ez dute generoaren ikuspegi espezifikorik eman, eta diskriminazio tradizioaletan sakontzen dute (adibidez, lanaldi-murrizketak, zeinek eragin handiagoa baitute emakumeengan gizonengan baino). «Erantzukidetasuna» desagertu da kontzeptu gisa, feminismoak eta zenbait politika publikok bultzatzen zuten «kontziliazio» kontzeptuak ordeztuta. Esate baterako, langileei zaintza pribatuagatik konpentsatuko dien prestazio ekonomikoaren eskaintza tranpa bat da emakumeentzat, gehienbat emakumeak baitira neurri hori hartuko dutenak.

Berehalako arriskua ez da beharrezko eraldaketak atzeratzea, baizik eta horiek bertan behera uztea eta eskubideak eta kalitate demokratikoa atzeratzeko esparru bat onartzea.

Krisi-garaian, gora egiteko joera du ekonomia informalak. Hori egungo egoerari aplikatzen zaio, eta ondorio zuzenak izango ditu emakumeengan. Datu zehatzik ez dugu, baina ekonomiaren informaltasuna sektore oso feminizatueta kontzentratzen da.

AURRERA BEGIRATZEA: PROPOSAMENAK ETA ONDORIOAK

Gizarte-babeseko neurriak ekonomia informalean daudenei zabaltzea; izan ere, egoera horrek batez ere emakumeak zigortzen ditu.

Lehenbailehen berrezartzea zerbitzu publikoak, haur-eskolak eta mendekotasunaren arreta.

Enplegu eta zainketen talka-plana. Lan-erreforma lehengoratzea, 35 orduko lanaldia ezartzea bost lanalditan.

Ongizate-sistemaren oinarriak indartzea, eta, horien artean, zaintza-sistema sektore publikoaren barruan: enplegu publikoa eta baldintza duinak.

Sistema publikoek oinarrizko zerbitzuak emateko duten gaitasuna indartzea. Birbanatzera bideratutako zerga-erreformak bultzatzea, ordaintzeko gaitasun handiena dutenak zergapetuko dituztenak (errenta handiak, korporazio handiak eta dirutzak), eta zerga-ihesari jazartzea.

Etorkizuneko sektore ekonomikoen artean sartzea adinekoen eta mendeko pertsonen zaintza. Inbertsio bihurtzea gastu sozial gisa kontabilizatu ohi dena.

Mendekotasunari eta haur-hezkuntzari arreta emateko inbertsioa handitzea, eskubide horiek unibertsalizatzeko trantsizio-programa baten barruan.

Baimen berdin eta besterenezinak parekatzeko prozesua osatzea, jaiotza-tasa handitzen laguntzeko.

Prestazio ekonomiko atzerakoiak kentzea eta horien ordezkari kalitatezko zerbitzu publikoak jartzea: familia-inguruneko zaintzak mendekotasunagatik, haurtzaindegiko txakeak eta abar.

5. SAIOA - 2020/07/16

«Eraiki dezagun etorkizuna berdintasunetik. Ikaskuntzak eta proposamenak COVID-19aren garaian»

PARTE-HARTZAILEAK

María Ángeles Durán.

Zientzia Politikoetako doktorea, Zientzia Politiko eta Ekonomikoetan lizentziatua eta ikasketa osagarriak ditu Zuzenbidean. Pascual Madoz Zientzia Sozial, Ekonomiko eta Juridikoetarako Ikerketa Sari Nazionala 2002an. Espainiako Soziologia Federazioko presidentea izan da, eta International Sociological Associationeko Batzorde Betearazleko kide. Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Emakumearen Ikasketen Institutua eta «Berdintasuneko politikak» UNESCO katedra sortu eta zuzendu zituen.

GERTUTIK BEGIRATZEA: DIAGNOSTIKOA ETA AZTERKETA

Zer joera handi ari dira gu markatzen denbora honetan? Gizateriaren historian inoiz ez da hain indartsua izan komunikazioen dentsitatea. Aldi berean «hemen» eta leku guztietan bizi gara, munduarekin konektatuta gaudelako. Globalizazioa identitate- eta sozializazio-espazio gisa agertu da, eta agerian jartzen du munduarekiko dugun erantzukidetasuna. Horrez gain, ziurgabetasunak gure begirada zeharkatzen du eremu guztietan: osasunean, ekonomian, gizartean eta abarretan.

Nola ari da erantzuten ekonomia? Feminismoa arduratu da gizarte honetan ezinbestekoa den ordaindu gabeko lana ikusarazteaz eta kuantifikatzeaz. Ekonomiaren puzzlearen lau zutabeek –enpresak, Estatua, etxeak eta boluntarioak– modu desberdinean erantzun dute pandemia honetan.

Construyamos el futuro desde la igualdad.

Aprendizajes y propuestas



Garbira notas
basatzeko
zirraborroak aipatuko

interconectadas
& en incertidumbre

van surgiendo
nuevas
CLASES
de CUIDADO

tenemos que
reinterpretar
la RIQUEZA
del progreso
del CUIDADO

10 innovación
para una
nueva arquitectura

fórmulas
COLECTIVAS

Empresa Estado
hogar voluntariado

necesidad de
RESPUESTAS más
RAPIDAS

4 VISIBILIZAR
trabajo
No remunerado

IMPORTANCIA
del
voluntariado

5 Renegociar
los ACTOS
PRIVADOS

la internalización
del CUIDADO (10%)

8 servicios
PUBLICOS
GRATUITOS

9 & INNOVACIÓN
Resiliencia
de manera
COLECTIVA

transmitiendo
aguas nuevas
sin mapas

un NUEVO
MODELO de
Cuidados
& relaciones interpersonales
cuidar & cuidados

7 como
RELACION
ESTRUCTURAL

redefinición
como SUJETOS

DEFINICIÓN
de espacios
& TIEMPOS

el/la
cuidadoriada

6 las personas
MAYORES

3 teletrabajo
ORDENAR
espacios & tiempos



Maria Ángeles Durán

#GraphicRecording by @muxotepotolobat



EMAKUNDE
EMAKUNDEIN ELISAL ERAGINDAKO
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Konfinamendu-fasean, Estatuak alde batera utzi behar izan ditu bere funtsezko funtzioetako batzuk: hezkuntza (etxeekin partekatuta edo ordezkatuta), eta osasuna (ia eskusibotasunez pandemiaren kudeaketan ardaztuta).

Eskaintza eta eskaria aldi berean geldiaraztea ordaindu dute enpresek.

Estatuak eta enpresek abandonatu dituzten funtzioei aurre egin diete familiek, eta lan-karga handia izan dute.

Boluntarioek eskaera asko jaso dituzte, baina haien ahuleziek (baliabide eta egitura faltak) eragotzi dute azkarrago eta eraginkortasun handiagoz erantzutea.

Zein dira kostuak emakumeentzat? Osasun-kostua; izan ere, emakumeak gaixotasun hori hartzeko arriskuaren lehen lerroan daude, eta, gainera, sektore zigortuenak (ostalaritza, jatetxeak, etab.) oso feminizatuta daude, eta enplegu-galerak gehiago eragin die. Familien barruan ere, krisiak kostu bereziki handia izan du emakumeentzat, zaintza-eskaera handiagoa baitute, eta beren gain hartzen dute, etenda geratzen diren funtzioei aurre egin behar dietelako, hala nola hezkuntzari eta mendekoen arretari, eta, aldi berean, beren jarduera profesionala telelanaren bidez mantentzen dutelako horretarako egokiak ez diren baldintzetan, denbora, baliabide eta espazio egokirik gabe.

Pandemiak sozialki birdefinitu gaitu. Adineko pertsona gehienek kontsumitzen dutenek baino zaintza-lan handiagoa egiten dute, baina denbora honetan zaintzak behar dituzten pertsona bihurtu dira. Familietan eta ingurunean betetzen duten funtzio sozialaz gabeturik, desplazatuta geratu dira. Adinekoen egoitzetako egoerak definizio berri horretan sakondu du. Tentsio handiak ditugu gizarte-zerbitzuak berrantolatzeke behar diren baliabideak aurkitzeko orduan (zaintza-zerbitzuak, pertsona ahulenei arreta emateko zerbitzuak eta abar).

INERen arabera, 2019an, ordaindu gabeko etxeko lanorduak lan-merkatu osoan baino % 30 gehiago ziren, eta lan horien % 80 emakumeek egin zituzten; mendetasun handiak dituzten pertsonen zaintzaren kasuan, ehunekoa % 84ra igo zen. Magnitude horiek gorabehera, ez dugu informazio nahikorik «zaintza» kuantifikatzeko, eta, gainera, ez gara gai izan hura modu sendoan definitzeko. Zaintza zer den zehazteko definizio bateratu bat eduki gabe, zaila da zaintza gizartearen lehentasun gisa neurtzea eta proiektatzea. Hala ere, zaintza-eskariak gora egingo du, bai egungo pandemiari erantzuteko, bai gizarte-premia berriei aurre egiteko, hala nola zahartzeari.

Pandemiak zaintza eta norbere burua zaintzea funtsezko funtzio gisa ikusarazten lagundu du. Horrek ez du ekarri eginkizun horren balorazio handiagorik, gure ekonomiaren oinarriak lehian oinarritzen direlako, eta ez guztion onerako lankidetzan edo elkartasunean. Gehien zaintzen dutenak, emakumeak, lehiatik kanpo daude.

Zaintzailegotza da azaleratzen ari den klase berria. Zaintzaren harremana, plano indibidualetik haratago, gizarte aurreratueta gertatzen den egitura-harreman gisa ulertzetik abiatzen da klase hori, eta zaintzaren funtzioa bete dezakeen pertsona kopuru handi bat hornitzeko nahikoa soberakin sortzen du. Gaur egun, herrialde garatueta, klase sozial berri horren klase ertain bihurtu da proletalgoa, baina alde bat dago: proletalgoak eskubideak ditu, lan-merkatutik igaro delako; izan ere, hori da Estatuak arautzen duena, baina merkatu horrek berak ez dio soluziorik eskaintzen zainketen auziari. Presio estrukturalaren ondorioz, sistemaren barruan okerren daudenak, emakumeak dira, batez ere geruzarik baxuenetakoak, lan horiez arduratzen direnak. Gero eta zaintza gehiago produzitu eta kontsumitu behar ditugu, eta gehien behar dituztenak dira zaintza horiek gutxien ordain ditzaketenak. Hori dela eta, populazioaren sektore bat azaleratzen da, merkatuak erosten ez duena eta estatuak babesten ez duena egiten duena: zaintzailegotza da; haien % 90 inguru emakumeak dira, Gizarte Segurantzarik ez dutenak, eta pobrezia-, mendekotasun- eta marjinaltasun-egoeran bizi dira. Gaur egun, ordaindutako zaintza legeak ezarritako gutxienekoen azpitik ordaintzen da, eta inolako konpentsazio ekonomikorik gabe zaintzen duten pertsonen kopuruak gora egiten jarraitzen du, aurreko senide eta ondorengoen zaintzari lotuta.

Oso nazioartekotua dago zaintza. Zaintza (zaintzaileak) eta dagoeneko zainduta iristen diren pertsonak –alegia, beste leku batzuetan zaindu dituztenak– inportatzen ditugu.

AURRERA BEGIRATZEA: PROPOSAMENAK ETA ONDORIOAK

Zainketen Estrategia berri bat behar dugu, batetik, neurri publikoak konbinatuko dituen, eta, bestetik, itun pribatuak kontuan hartuko dituen. Ezinbestekoa da ekonomia birdefinitzea onura eta aberastasun ekonomikoa premisa bakartzat jotzea gainditzeko eta, horrela, monetarizatu gabeko harremanak sartu ahal izateko.

«La riqueza invisible de los cuidados» (Zainketen aberastasun ikusezina) liburuan kalkulu hau egiten da INEren metodologian oinarrituta: etxeetan egiten den ordaindu gabeko zaintza-lana lanaldi osoko 28 milioi enpleguren baliokidea da. Ezin da lan hori modu klasikoan ordaindu, eta gizartearen puzzlea osatzen duten elementuen konbinaziotik etorriko dira konponbideak.

Alde batetik, familien barruko lana birbanatzea, itun pribatuetatik abiatuta.

Aurrekontu orokor publikoak doitzeko, zerbitzu publikoak ziurtatzeko.

Enpresa-berrikuntza sustatzea, gehienentzat irigarriak diren zerbitzuak garatzeko.

Boluntariotza indartzea, zainketen aldeko itun kolektiboa sendotzeko.

4. LABURPEN GRAFIKOA

Garbira pasatzeko zirriborroak



riesgo de INVOLUCIÓN

✓ riesgo a CRONIFICAR las DESIGUALDADES

& multi factorial la CRISIS


una MIRADA

es URGENTE una MI

en el ámbito de las **Violencias:**

- ✓ Nuevas maneras de INTERVENIR
- ✓ el refuerzo de las REDES de APOYO
- ✓ ampliar la MIRADA a todo tipo de violencias

no hacemos PODIDO VER lo QUE OCURRE



en el ámbito de la **Salud**

dar PRIORIDAD POLÍTICA & SOCIAL

INCLUIR otros determinantes SOCIALES

CUIDAR a quienes CUIDAN mayoritariamente MUJERES

estamos en PRIMERA LÍNEA con menos Recursos
la SALUD NO ES SÓLO AUSENCIA de ENFERMEDAD



en **ECONOMÍA**

- ✓ aumentar las INVERSIONES
- ✓ SERVICIOS públicos PROGRESISTAS de CALIDAD
- ✓ Reforzar los PILARES del BIENESTAR
- ✓ Apostar por la INNOVACIÓN & la TRANSFORMACIÓN SOCIAL

se confirma la ECONOMÍA feminista frente a otras TEORIAS



notas

para pasar
a limpio

una APORTACIÓN
al debate público
& una CONTRIBUCIÓN
a sociedad más EQUITATIVA

A de cerca que...

CRISIS
TÉCNICA ha VARIADO las
AGENDAS
& PRIORIDADES

✓ emergencia
de NUEVAS INEQUIDADES

RADA hacia adelante

A & sistema de CUIDADOS

que
REZAR
CTIVA

CRISIS
TOMA
DECISIONES

una
MIRADA

feminista interseccional

pasar de
SER
a HACER

POTENCIAR
Lo PÚBLICO

para la
transformación
SOCIAL

NUEVAS
ALIANZAS

desde & para el
feminismo

el
CUIDATORIADO
COMO RELACIÓN
ESTRUCTURAL

- ✓ el TRABAJO
DIGNO
- ✓ RECURSOS
Públicos
para ASEGURAR
SERVICIOS
Públicos
- ✓ Redistribuir
el CUIDADO
en el hogar
- ✓ Repensar
nuestros PACTOS
PRIVADOS
- ✓ reforzar
el VOLUNTARIADO
& la COMUNIDAD
- ✓ INNOVACIÓN
empresarial
para Nuevos
servicios
ACCESIBLES

una
CRISIS
de SOSTENIBILIDAD
de la VIDA
para REFORZAR
el CUIDADO
no somos
SOSTENIBLES



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

by @muxotepotolobat

